

DENONTZAT RACE DONOSTIA 2020-05-16

Nik.....

Honako N.A.N zenbakia duenak..... adinduna eta honako agiria sinatzeko ahalmen osoarekin, ondoren datorren iragarria irakurri, ulertu eta onartzen dudala deklaratzeko dut:

Denontzat Race Donostia lasterketaren araudia eta ondoren azaltzen den karguak kentzeko orria ezagutu eta onartzen dudala DEKLARATZEN dut:

Antolakuntzak lasterketa gogorra dela jakinarazten dit eta gainera ibilbidean zehar jarritako oztopo natural zein artifizialen berezko arriskuak emango dira.

Nire ardura bakarra da lehiaketarako prestatuta egotea, orokorrean osasun egoera ona edukitzea baita prestakuntza fisiko, tekniko eta mentala maila nahikoa izatea zenbait kilometro eta oztopo dituen horrelako froga bat gainditzeko.

Ulertu eta onartzen dut, ez antolakuntzak ezta laguntzaileak diren gainontzeko pertsonak ere, arduradunak izan daitezkeela, edozein egoeratan, lasterketa honetan nire parte hartzeagatik gerta litekeen lesio, heriotz edo beste edozein kalteengatik edo eta, antolakuntzak izan ditzakeen arduragabekeriagatik, kontratatutako zerbitzuekin gerta litekeenak barne.

Gainera, lasterketa bera, antolatzaileak, laguntzaileak eta babesleak askatzen ditut, nik edo nire senitarteko, dinordeko edo legalki ni ordezkatu dezaketen pertsonak lasterketa honetan nire parte hartzeagatik jarri dezaketen edozein erreklamazio judizial edo extra judizialeatik.

Denontzat Race Donostia lasterketan izan dezakedan lesio, istripu edo/eta gaixotasunagatik jaso dezakedan tratamendu medikuaren kostuak nire gain hartzea onartzen dut. Badakit horrelako lasterketa motak, natura ingurugiroan eta kontrolatzeko zailak diren lekuak zeharkatzen dutenak, parte hartzaileentzat arrisku gogorri bat suposatzen dutela. Horregatik, nire borondate eta ekimenez parte hartzen dut, parte hartze honek suposatzen dituen arrisku eta ondorioak guztiz nire gain hartuaz.

Lesioa edo gaixotasuna medio, lehen sorospen edo tratamendu medikoa jasotzeko baimena ematen dut eta honen bidez tratamendu horien ondorioz suertatu daitezkeen edozein ardura edo erreklamazio askatzen dut.

Ados nago antolakuntza ez dela arduradun ekitaldian galdu, matxuratu edo lapurtu daitezkeen elementu personal edo ondasunekiko.

Antolakuntza baimentzet dut ekitaldiaren argazki, irudi, bideo, pelikula, grabazio edo beste edozein erregistro betirako erabiltzea, zilegi den helburu batekin, eta ez dudala konpentsazio bat jasotzeko eskubiderik izango.

Nire dortsala pertsonala eta besteraezina da, beraz ezin izango du beste edozein parte hartzailek eraman nire ordeaz.

Sinadura: